

# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 2342

*EBAZPENA, 2024ko apirilaren 30ekoa, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena, zeinaren bidez, Zalduondoko Udalaren eta Arabako Lautadako Kuadrillaren arteko elkarte eratzten baita, Estatuko gaikuntza duten funtzionarioentzat gordetako Idazkaritza lanpostua elkarren artean mantentzeko.*

Arabako Lautadako Kuadrillako Batzarrak eta Zalduondoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 6an eta 8an egindako bileretan, hurrenez hurren, onartu zuten, bi toki-erakundeen arteko elkarte eratzeko prozedurari hasiera ematea, Estatuko gaikuntza duten Toki Administrazioeko funtzionarioentzat gordetako Idazkaritzako lanpostu bakarria elkarrekin mantentzeko helburuz.

Horren harira, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 21eko 7/1985 Legearen 3. artikulua ezartzen duenez, lurralde-mailako toki-erakundeak udalerrria, probintzia eta uhartea dira; toki-erakunde dira, halaber, eskualdea eta hainbat udalerrri biltzen dituzten beste erakunde batzuk, lege horrekin eta kasuan kasuko autonomia-estatutuekin bat etorritik autonomia-erkidegoek eratutakoak badira, baina legeak ez badie lurralde-izaerarik ematen.

Horri dagokionez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikulua aurreikusten du toki-korporazio guztietan Estatuko gaikuntza duten toki-administrazioeko funtzionarioentzat gordetako administrazio-erantzukizuneko nahitaezko funtzio publikoak direla: a) idazkaritzakoak, fede publikoak eta aginduzko lege-aholkularitzakoak barne; eta b) ekonomia-finantzen eta aurrekontuen kudeaketaren barneko kontrol eta ikuskapenekoak, eta kontabilitatekoak, diru-zaintzakoak eta diru-bilketakoak.

Era berean, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, Estatuko gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 9. artikuluan aurreikusten du zerbitzu- edo baliabide-bolumen nahikorik ez duten toki-erakundeek Idazkaritza lanpostuari elkarrekin eta elkartuta eusteko aukera; horrela, tokiko erakundeak elkartzea salbuespena da apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikuluan jasotako printzipio orokorraren aldean.

Horrela, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 9. artikulua arabera, autonomia-erkidegoei dagokie, beren arauen arabera, tokiko erakundeen elkarrekin sortzea eta desegitea, beren lurralde-eremuaren barruan, dagokion probintzia-diputazioak txostena egin ondoren. Elkarte sortzea onartu ondoren, ondoriozko lanpostua autonomia-erkidegoak sailkatuko du, Errege Dekretuaren II. kapituluaren ezarritako irizpide aplikagarrien arabera.

Gauzak horrela, prozeduraren instrukzio-aldian, Arabako Foru Aldundiari eskatu zitzaion txostena eman zezala aipatutako toki-erakundeen eskaerak zirela eta; Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak eskatutako txostena jaso du. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren aldetik aldeko txostena ematen zaio Estatuko gaikuntza duten Toki Administrazioeko funtzionarioentzat gordetako Idazkaritzako lanpostu bakarria elkarrekin mantentzeko helburuz, bi toki-erakundeen arteko elkarte eratzeko eskabideei.

Elkarte berriaren lanpostuaren sailkapenari dagokionez, kontuan edukita udalerrri horietako biztanleriak eta udalek kudeatzen dituzten aurrekontuak, bidezkoa da elkarte berriaren Idazkaritza hirugarren mailakotzat sailkatzea, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

Hori dela eta, aipatutako legediari eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 11. artikuluari jarraituz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Arabako Lautadako Kuadrillak eta Zalduondoko Udalak osatutako elkartearen eraketa, Idazkaritza lanpostua elkarren artean mantentzeko.
2. artikulua.– Elkartearen Idazkaritza hirugarren mailakotzat sailkatzea. Lanpostua Idazkaritza-Kontuhartzaitza azpieskalako Estatuko gaikuntza duten Toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeta egongo da.
3. artikulua.– Lanpostu hori betetzeko sistema merezimendu-lehiaketa izango da.
4. artikulua.– Elkartearen hiriburutza Zalduondo udalerrian egongo da.
5. artikulua.– Arabako Lautadako Kuadrillak eta Zalduondoko Udalak lanpostu hori haien lanpostu zerrendetan gehitu beharko dute lanpostua bete baino lehen.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal zaio Erakunde Harremanetarako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan, eta hargatik eragotzi gabe errekurtsioa aurkezteko xedez zuzenbidean onartutako edozein bide erabiltzea.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluari jarraituz, administrazio publikoek ez dute administrazioarekiko errekurtsorik jartzetik izango ebazpen honen aurka. Hala ere, ebazpen hau errekurritu daiteke EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita, 29/1998 Legearen 45. eta hurrengo artikuluen arabera. Halaber, aurretiaz eta epe berean, Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritza honi eskatu ahalko diote ebazpen hori baliogabetzeko edo errebokatzeke, 29/1998 Legearen 44.1 artikuluan ezartzen denari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 30a.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria,  
EVA LEJARCEGUI BARRENA.